



PRENTSA-OHARRA

Udalak Zabalgunea hein batean oinezkoendako jartzeko proiektua azalduko die auzoko bizilagunei bilera ireki batean, abenduaren 14an, astelehenarekin

Topaketa 18:30etik aurrera izanen da, Zabalguneko Civioxean, eta bertan zinegotziak, Alorretako zuzendariak eta udal teknikariak izanen dira

Iruñeko Udalak bilera bat egingen du, abenduaren 14an (astelehena), Lehen eta Bigarren Zabalguneko bizilagunekin, datorren urtean martxan jarri nahi den proiektua, auzoa hein batean oinezkoendako bilakatzea, azaltzeko. Hitzordua 18:30ean izanen da, Zabalguneko Civioxean (Nafarroako Blanca plaza, 9, 3.a), eta irekita egonen da interesa duen ororentzat.

Topaketa horretan, parte hartu nahi duten bizilagun guztiez gain, honako hauek izanen dira: Aritz Romeo Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako zinegotzi ordezkaria, Armando Cuenca Hiri Ekologia eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkaria, Itziar Gómez Zabalguneko auzoko zinegotzia, Xabier Ibáñez Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorreko zuzendaria eta Jesús Estanga Udaltzaingoko Talde Teknologikoko inspektorea.

Ekitaldian proiektua aurkeztuko da, eta kaleetan sortuko dituen eraginak azalduko dira, baita aurreikusitako planifikazioa eta egingen diren esku-hartzeak. Azkenik, bertaratuei hitza emanen zaie zalantzak galdetu, iradokizunak eman eta ekarpenak egin ditzaten. Proiektua azaltzeko hirugarren hitzordua izanen da hau, azaroan bilerak egin baitziren Alde Zaharreko Mahaiarekin eta Oinezkoen eta Bizikleten Behatokiarekin.

Zabalgunerako neurriak

Zabalgunean hein batean oinezkoendako egiteko Udalaren proiektuak oinezkoei espazioa ematea du helburu. Horretarako, Sarasate pasealekua zirkulaziorako itxitako bulebar bat bilakatuko da, eta bertan garraio publikoa baino ezin izanen da ibili. Inguruko kaleetan, Alondegi eta Vínculo kaleak oinezkoendako egitea aurreikusi da. Halaber, Sarasate pasealekuaren, Yanguas y Miranda kalearen eta Oliveto Kondearen eta San Ignazio etorbideen arteko koadrantean aparkatzea bizilagunentzat bakarrik baimendu nahi da, eta, zirkulazio-intentsitatea murrizte aldera, zirkulazio-zirkuitu zehatzak ezarri eremu horretan.

Baluarte plazaren inguruan zirkulaziorako itxiko da Aita Moret kalea (salbu hiri-garraioarendako), Chinchilla Jeneralaren kaletik, oinezkoendako ibilbidea sortu eta Alde

1. orrialdea, 2(e)tik



Zaharra eta Lehen Zabalgunea Baluartearekin eta Zitudelarekin lotzeko. Halaber, Basotxo kalea ere oinezkoendako izanen da. Proiektuak, baita ere, hainbat aldaketa ekarriko ditu Lehen Zabalgunean bertan, hau da, Yanguas y Miranda etorbideak, Navas de Tolosa kaleak eta Armada etorbideak zedarritutako gunean. Gune horretako aparkatzeko eremu urdina eremu berde bihurtzeko aukera aztertzen ari da, egun osoan edo eremu urdinak funtzionatzen ez duen orduetan.

Aldaketa horien ondorioz, baita ere, Yanguas y Miranda etorbidearen zati bat (Sarasate pasealekuarekin bat egiten duen tokitik Chinchilla Jeneralaren kalera arte) zirkulaziorako itxiko da, salbu eskualdeko hiri garraioko ibilgailuendako. Autobus horiendako, tarte hori zirkulazioko bi norabideetan ezarriko da.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an